

# geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27

## AMILAMIA

**ETXEAN ETA**  **KANPOAN SARITUA**

KULTURA


## COMTRA-CULTURE


**ALTERNATIBA, TXO**

**gasteizko gaua kulturaz jantzi da**



KIROLAK



**Mauleon eta**  **Bengoarekin arabar txirrindularen balantzea egin dugu**

**UPV-Oskarbi voley-taldeak betirako agur esan digu** 

# GASTEIZKO UDALA



## Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
<b>UDALETXEA</b> ZERBITZU OROKORRAK GIZARTEGINTZA	PRENTSA KABINETEA	Espainia plaza, z/g	16 13 37
	Espainia plaza, z/g	16 13 08	
	Espainia plaza, z/g (ARGIBIDEAK)	16 13 44	
	GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA	Espainia plaza, z/g	16 13 30
	FUNTZIO PUBLIKOA	Espainia plaza, z/g	16 11 41
<b>BULEGO TEKNIKOAK</b>	IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g	16 13 20
	ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA	Espainia plaza, z/g	16 11 88
	ERROLDA	Espainia plaza, z/g	16 11 06
	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA	Dato, 11	16 16 68
<b>OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)</b>	ZERGEN GESTIOA	Dato, 11	16 11 33
	INGURUGIROA	Dato, 11	16 11 20
<b>UDAL ARTXIBOA</b>	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
<b>ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA</b>	ARGIBIDEAK		16 12 88
	ARGIBIDEAK		16 12 70
<b>VILLA SUSO JAUREGIA</b>	ARGIBIDEAK		16 12 16
<b>HEZKUNTZA SAILA (IME)</b>	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
<b>EKONOMI SUSTAPENA</b>	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 11
			16 13 48
<b>GIZARTE ETXEAK</b>	JUDIMENDI	Urriak 12 kalea, z/g	16 17 40
	LANDATXO	Santa Maria kalea, 4	16 16 82
	IPARRALDE	Zuberoa plaza, z/g	16 17 60
	ARIZNABARRA	ARIZNABARRA, 19	13 36 91
<b>EUROPA GIZARTE-ETXEA</b>	ARGIBIDEAK (KULTURA)		16 12 31
	BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 61
<b>KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA</b>			16 36 91



Z E  
E L  
R E  
B B  
I I  
T U  
Z N  
U A  
K

96ko azaroa

**geu** gasteiz  
aldizkaria

**Zuzendaria:**

JOSU KINTAS

**Erredakzioburua:**

XABIER ZABALETA

**Erredakzio-  
batzordea:**

LEIRE LOPEZ DE  
ABERASTURI

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

LOREA ZURIMENDI

MIEL ANJEL ELUSTONDO

DAVID ALVEZ

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

**Maketazioa:**

ALEX BADILLO

**Itzultzailea:**

IÑAXIO LOPEZ DE ARANA

**Komikia:**

IÑIGO SARASOLA

**Marrazkiak:**

AITZIBER IRIONDO

**Publizitatea:**

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

**Argazkilariak:**

EDORTA SANZ

LUKAS ETXEBERRIA

JOSEBA UNZALU

**Kolaboratzaileak:**

TXIPI ORMAETXEA

JUAN JOSE KASTRESANA

IÑAKI GAUNA

TXABI ARNAL GIL

MIKEL GARMENDIA

**INPRIMATEGIA:**

GERTU KOOP. E.

(ZUBILLAGA, OÑATI)

# Herrirako itzulia

**GAIZKI DAGO** lan merkatua, lanpostu bat lortzea gero eta zailagoa dugu gazteok. Hori dela eta ezin inolako aukera alperrik galdu. Arabar gehienen aiton-amonak baserritarrak zirenez familia asko eta asko lurjabeak dira egun ere. Lan merkatuaren egoerak bultzatuta gero eta gazte gehiagok jotzen du aiton-amonenak izandako lur horietara, hortik bizitzeko asmoz. Duela 50 urte, gurasoek beraiek bultzatzen zituzten seme-alabak hirira joatera, bertan bizitza hobetuz aurkituko zutelakoan. Egun, nekazaritzan aritzeko konbenzitzen saiatzen dira, "jateko haina behintzat izango duzu" izaten da argudiorik erabiliena.

Hiritik herrirako itzulia egitea ez da erreza baina aurrera atera den edo aurrera ateratzeko ahaleginetan dagoen bat baino gehiago ezagutzen dut. Betidanik herrian bizi nahi zutenak eta langabeziak horretarako bidea erraztu diotenak badaude baina baita, duela gutxi arte herrira urtean behin zihoan kaletar peto-petoak ere, sagarrondo esplotazioa jarri eta egun, eguzkia, hotza eta harrekin gogor borrokatzen dihardutenak nola edo hala aurrera ateratzeko. Batak eta besteak formazioa behar dutela argi dago, aiton-amonen jakinduria tradizional eta aberatsari muzin egin gabe, egunetik egunera aurreratuz den teknologia erabiltzen ere ikasi behar baita.

Baserritarren seme-alabek landuagoa daukate bidea, noski, baina haientzako ere ez da erreza. Lehenik eta behin, lurra lortzeko arazoak izaten dituztelako; beraz, gurasoak erretiratu arte, jai dute hauek ere. Bestetik, produkzio modua ikaragarri aldatu da belaunaldi batetik bestera; egun ekoizpen modu berriak daude eta moldatzea ezinbestekoa da soldata bat atera nahi izanez gero. Aipatutako arazo horiek sektore



guztietan ematen direla pentsatuko du norbaitek. Ba,... bai, baina ez; nekazari jarduerak eta nekazari beraiek ere ezaugarri propioak dituzte eta orain arte, oso formazio eskasa izan dute lehenengo sektorean lan egin dutenek. Gainera, hirirantzako emigrazioak erabat desegituratuta utzi du herrietako gizartea, gazteak dira gehien bat nekazari guneak utzi eta industria guneetarako bidaia egin dutenak. Guzti horren ondorioz, herrietan geratu den jendea mugigaitza eta desilusionatuta dagoela esan daiteke.

Formazioak egoera horren alde egin dezakeena argi daukagu EHNEEn, eta ondo dakigu ez dela ezagupen hutsak ematera mugatu behar. Gunea dinamizatu eta ilusionatzeko balio behar du; beti ere beraien tradizioa eta iritzia errespetatuz, beraien ikuspegitik lan egiten, izan ere, ez ditugu gure herriak hiritartu nahi. Inolaz ere ez.

*IDOIA ROMANO, EHNEKO  
FORMAZIO SAILEKO ARDURADUNA*

gasteizko euskaldunon aldizkaria

**Pedro Asua, 2 - 3.a**  
Tfno. eta faxa 22 21 53

**argitaratzailea:**

**GEU**

6.000 Aleko Tirada  
Lege-Gordailua VI-582/92

GEU GASTEIZEK ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

Pisua:

ZKIA:

KALEA

# Garroña

Munduan 432 zentral nuklear daude. Horietariko bar Garroña dugu. Garroña, Ebro ibaiaren ertzean eta Gasteiztik 50 kilometrora kokatua dago; Burgosko Santa María de Garroña herrian, hain zuzen ere.

Garroñak, bete ditu jadanik 25 urte. Bera hustiatzeko ardura dutenek (Nuclenor enpresakoek), hala ere, funtzionamenduan mantendu nahi dute beste hainbat urtetan. Batzuentzat atomoaren energia negozio ederra den bitartean, beste askorentzat arazo larria izaten da: erradiaktibitatea, hondakin erradiaktiboen kudeaketa eta pilaketa, istripuak...

1.- Nola ikusten duzu Garroñako zentral nuklearraren bizitza luzatzea?

2.- Zer iritzi duzu nuklear energiari buruz?



ANTONIA REYES  
etxeakoandrea

- 1.- Ez dakit gehiegi gai horri buruz, baina zentral horiek konfiantza gutxi eskeintzen didate.
- 2.- Nuklear energia alde batera utzi behar litzateke seguritatez ez duelako.

## Bertsoak

# AZAROA



EGILEA:  
Dani Zuazagoitia  
DOINUA:  
zortziko nagusia

### Bejondeigula !

Duela hainbat hilabete handitu genuen aldizkariaren tirada. Dena den, agortu egin zaigu berriro ere. Beraz, izena oraintxe eman diguzutenok ez duzue momentuz jasoko. Pazientzia izan.

Hemen dugu jada Azaroa heldu zaigu hona hotza orain zapatu gaua bai latza ta domeka egun motza ez dugu ez ba hilabete hau oso gustokoa antza baina alde ona izanen du ez bait da soilik gorotza

Azaroz ongi gozatzeko mendira hurbildu zaitez pagadi eta arizti artean ondo egonen da zinez basoa ederra bait daukazu ori, laranja kolorez Euskal Herriko baso ta mendi bezalakorik inon ez.



EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin

Eguneroko Menua  
Betiko kazuelatxoak

IPARRA

taberna

Gino ezin hobea!

Florida, 80

Tfnoa: 26 77 81

GASTEIZ



ANTONIO GOMEZ  
komertziala



AITOR MARTIN  
langabea



DIEGO UGARTE  
itzultzailea



BLANCA FDEZ. DE  
JAUREGI  
auxiliarra



MARIJE  
IZAGIRRE  
IKako irakaslea

1.- Ez da gauza ona. Industria nuklearrak sortzen dituen betiko arazoez gain, inguruko mendietara joatean paisaian duen eragin kaltegarria ikus daiteke.  
2.- Edozer gauza nahiago dut nuklear energia baino. Adibidez, artoarekin lortutako energia gehiago erabili beharko genuke.

1.- Nahiz eta arriskutsuak izan, gaur egun beharrezkoak dira, ordea, beren zikloa bukatu duten zentralak, Garoña kasu, lehenbailehen itxi behar dira.  
2.- Osasuntzarentzat kaltegarria izan daiteke. Horregatik beste energia motaren bat erabiliko nuke.

1.- Nire ustez nahita eraiki zuten Euskal Herriaren ondoan, baina guk ezin genuen ezer egin.  
2.- Energia nuklearra oso arriskutsua denez, beste energia alternatibo batzuk erabiltzen saiatu beharko genuke.

1.- Garoñaren aurka nago eta nire eskuan balego, oraintxe bertan itxiko nuke.  
2.- Beste energia alternatibo batzuk erabili behar direlakoan nago.

1.- Nik Madrilgo Gran Via-n jarriko nuke zentrala. Guk ez dugu nahi, har dezatela beraiek!  
2.- Beste energia motaren bat erabili beharko litzateke.

# mintzo



a

Kaixo lagunok! Asmatu duzue. Urriko argazkiak Fueros eta Datokoak ziren. Irabazlea Javier Balza de Vallejo izan da. Zorionak!

txapelketa



b

Hile honetako argazkiak ere oso errezak dira, ezta? Animatu eta idatziguzu.



Gasteizko zein kaletan aterata daude 'a' eta 'b' argazkiak  
Mikeldi Zinemen eskutik azken estreinuak ikustera joan zaitezke



giro atsegina eta lasaia

espezialitatea: etxeko pintxoak  
1993ko txapelduna • 1994ko azpitxapelduna

ERRIOXAKO ARDORIK HOBERENAK EZAGUTZEKO AUKERA

ARKA 2 / DATO 27 • GASTEIZ



TABERNA

Upabi

San Antonio, 39

argazkia

"GASTEIZEN EZ DAGO  
24 ORDUAK  
EUSKARAZ BIZITZERIK"

FRAN

Nor da? URTEAGA

□ Jose Frantzisko Urteaga da, berrez. "Baina lagunek, hemen, Fran esaten didate. Eibarren, berriz, Praixko". Eibarren jaio eta hazia, ikasketek ekarri zuten Gasteiza duela hamabost bat urte. "Euskal Filologia ikasten hasi nintzen, hiru urte egin nituen, ez nituen ikasketak osatu eta alde egin nuen, AEKko talde didaktikoan buru-belarri sartu nintzelako eta hark jan zidalako denbora dena".

□ 1.956an jaio zen, irailaren 19an. Virgo. Begiratu ere ez dio egiten, baina ez da ihesbiderik. "Emazteak irakurtzen dit eta, beraz, jakiten dut zer dioen. Buruari buelta asko ematen omen diogu Virgo garenok eta, agian, asmatu egiten du".

□ Emazte eta umearekin bizi da San Martinen, "pintoreetan", berak esatera. Euskal girorik auzoan? "Zer edo zer antzematen da. Euskaldunen arteko lotura handirik ez dut ikusi auzoan baina ni neu euskaraz bizi naiz inguruko jendearekin". Eta tartean-tartean ere entzuten omen du euskaraz

hitzegiten. "Haur asko dago eta askok hitzegiten du euskaraz. Gurasoek elkarri gaztelaniaz, baina haurrei euskaraz. Euskal Herriko ohitura ei da hori".

□ Bidegintza du lanbide, eta zinegintzan ere jarduten du, nahiz eta zeharka. "Azken hamar urtean hezkuntza bideoak ekoiztu ohi ditugu. "Euskararen bidean" da gure izarra, baina museoei buruz ere egina dugu saila. I.E. Ekoizleak S.A. da gure enpresa. Florida 78-2.ean gaude. Baina aldatzekotan gara datorren hilean...".

□ Eta eibartarra pozik Gasteizen. "AEKn sartu ginean sekulako boom-a bizi zuen euskarak, matrikulazio kopuru handiak, Gasteizko giroan sartzea oso erraz gertatu zitzaigun, musika mugimenduak ere orduantxe gertatu ziren -Hertzainak, Cicatriz...-, giro hori bizi izan nuen eta, jakina, Gasteiz maite dudala esan behar dut". Baita Eibar ere, horratik! "Gutxitan joaten naiz baina Eibar ere maite dut... Gasteizen parean".



Zer falta zaiok?

Hondartza.

Euskaraz bizitzerik badago Gasteizen?

24 orduak, ez. Batez ere, erakunde euskalduntze falta-gatik. Bestela, lagungiroan eta, bai. Galdera zuzen erantzun beharko banu, ezetz esango nuke. Baina "baliteke" erantzungo nuke, norberaren esparrua mugatuz gero.

Non da pozik bizitzeko sekretua?

Konformatzea. Atzerakoi izan gabe ere. Eguneroko detaileei begiratu eta haien balorea ezagutuz eta aitortuz, nahiz eta beti azken helburu bat izan (utopikoa, iritsiezina), eta haren bila eta bila jardun, behin ere lortu gabe...

Hire kezkarik handiena, oraintxe?

Euskara.

Azkenaldiko pozik handiena?

Umea.

Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria, Vitoria-Gasteiz?

Orain bizi naizen tokian. Beraz, Gasteizen, pintoreetan.

Gasteiz.

Zer dik Gasteizek onena?

Non biziko hirtzateke gustora?

Berritzen ari den hiria dela. Barne-mugimendua duela.

**ALISAS**  
TABERNA

KUTXI 591

**AGIRRE**  
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK

Tfnoa: 989 50 73 18 GASTEIZ

**KLASEAK**

matematika  
fisika irakaskuntza ertaina  
kimika eta unibertsitatea  
biologia  
geologia ☎ 26 03 54

**Zinezalea haiz?**

Bai, ez amorratua, baina bai. Esate baterako, bete nauen filme bat: "Raining stone", Ken Loach-ena, "Tierra y libertad" egin zuena. Edo zuzendari horren filmografia guztia.

**Aktore-aktosesaren bat, zuzendariren bat?**

Sigourney Weaver, "Alien" egin zuena.

**Jeniorik bai?**

Bai, batzuetan gorde egiten dudan arren. Eta okerrago da...

**Zerk ateratzen hau heurre onetatik?**

Leku publiko batera joan eta euskaraz ezin egin izana, eskubidea dudala jakinaren gainean.

**Zer eramango huke irla batera?**

Oraintxe, haurra eta emaztea.

**Oporrak non?**

Echo-n, Anso-n... Non edo non Pirineoetan. Aurretik, berriz, ohiko bidaiak ere egin izan ditut. Bidaiazalea naiz, nahiz eta nik nahi adina bidaia ez egin. Beharbada, bidaiazalea naiz... ametsetan. Baina gustura joango nintzateke Dolomite-tara, Italiako iparraldean.

**Aukerazterik bahu, nola hilko hintzateke?**

Minik sentitu gabe.

**Zenbat denbora ematen duk ispilu aurrean etxetik irten aurretik?**

Gutxi. Aurpegia urez bustitzeko lain. Pixka bat gehiago, bizarra egiten dudanean.

**Jatun ona haiz?**

Bai. Hainbeste gauza goxo dago... Entsalada mistoa eta arrainen bat jango nuke. Arraina, labean, olio tantaren

batekin aurrena eta, gero, berakatz frijitua gainetik ipinita. Eta gutxi egina. Bestetik, ez naiz postrezalea, baina beti bat dut fijo: flana.

**Igande goizeko plana?**

Kanpora irteten ez banaiz, egunkaria hartu eta lasai irakurri. Osterantzean, inguruko parkeren batera atera, dela Murgia aldera, Gorbea aldera...

**Nolakoa beharko likek hire bikote-lagun idealak?**

Ni ulertuko nauena baina kasu handirik egingo ez didana: agintari xamarra.

**Nolakoa huke mundua emakumeek gobernatuko balute?**

Berdintsua, seguru aski. Badi-rudi emakumeek gizonek egin dutena imitatu nahi dutela.

**Zerk ematen dik bizitzeko gogoa, ilusioa?**

Oraintxek, haurrak.

**Libururen bat?**

Obabakoak.

**Gustuko autorerik?**

Atxaga.

**Hire biziorik handiena?**

Tabakoa eta Errioxako ardoa. Baina ez dira bizio beste. Tabakoa nahi dudanean uzten dut, nahiz eta gustatzen zaidan erretzea. Ardoari buruz, berriz, berdin esango nuke.

**Hire alderdirik onena?**

Neuk esatea ere! Lasaitasuna,

beharbada.

**Zer eskatzen diok bizimoduari?**

Okerrera ez dezala egin.

**Ezagutzen duk GEU?**

Bai, jasotzen dut. Mugimendua sortu zenean, bileran nintzen. Baina ez daukat denborarik elkartearen sartu eta astero edo hamabostero bilerak egin eta abar. Ideiak asko gustatzen zaizkit: mendi taldea dela, gizarte-etxeetan biltzea... Oso ondo iruditzen zait baina ez dut astirik bertan ahalegintzeko.

**Zer egingo huke munduan den denbora dena izanez gero?**

Horietako talderen batean murgildu eta, batez ere, gehiago irakurri. Eta proiektu berriak asmatu, hausnartu eta aurrera atera.

**Hire maitasun-egoera?**

Maiteminduta, zeharo.

**Eta erlijio-egoera?**

Agnostikoa? Ateoa, beharbada? Erlijio bakarra ezagutzen dut eta badakit maite ez dudana. Besterik da sinesmena. Zalantzak ditut horri dago-kionez.

**Zer galdera nahi huke nik hiri egitea?**

Hainbeste galdera eta gero ez zaidak besterik bururatzen...

Miel Anjel Elustondo



ZAVIAR SIEDO ZINDO

GASTAIZKO BAZKIAK

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

# Abiadurak

Plaza Berrian zeuden, eserita. Ilea zuri eta zeharo murriztua. Aurpegia tximur arrakalaz beteta: jubilatatu berriak.

- Halaxe duk bai, halaxe... Oraindik haurtzaroan haizelakoan eta... zast! Jubilatuta...

- Bai, bai... halaxe dituk mundu honetako denborak...

- Lehengo egunean, San Migeletik begira nengoela hor ikusi nizkian, udazkeneko hego haizeak horbelak bezalaxe, hamar mila pezetako bileteak, eta ez horbel iharrak bezala sakabanatuak, ez, ongi lotuta eta tolestuta... Denak geuri ohostuak... Hura abiada! Bankuetatik irten eta fiiiuuu... Oraingoz Suitzan zeudek ongi gordeta.

- Eta ikusi hituan e...?

- Bai motel, horretarako adi egotea bezalakorik ez zegok...

Eta atzo hara non datorren gizon txikitxo bat, bere bibotearen azpitik irripar faltso bat dariola hortzak erakutsiz... eskuetan sega eta zast! Begiak kliskatu orduko gure pentsio guztiak lepoa moztuta...

- Jesus Alejandro! Hori duk abilidadea... Eta hik ikusi...

- Ikusiko ez nian ba! Azkarragorik bazegok hemen... Ez al duk etxebizitzaren prezio igoeraren abiada ikusten? Eta behetik gora! Garai bateko astronautek baino azkarrago egingo ditek hauek ilargirako bidea. Gorago ez bazihoazek behintzat. Eta ez al duk langabeziaren abiada ikusten edo lantegiak ixtearena, gaztedia isiltarztearena eta abar luzearena...?

- Egia duk bai, sinistezina.

- Atzo Plaza Berrira nentorrela, Euskara bera, Udal Euskal Ordenantzak, Autodeterminazioa, Askatasuna... denak batera ikusi nizkian.

- Horiek tximista bezain azkar pasatuko hituan ba...?

- Bai zera! Urte guztia Olagibel zeharkatzen eta oraindik Santiago ospitala pasatu ezinean... Ez zekiat Ertzaintzaren kuartela jarri dutelako, gaixo ditualako... ez zekiat "Euskadi Euskaldun eta Askea" helmugara iritsiko dituan...

- Iritsiko dituk...

- Kia! Semaforo guztiekin gelditzen dituk... "Berdeekin", "gorriekin"... eta baita Stop "urdinekin" ere...

- Eta guztia ikusten duk...! Nik ez diat ezer ikusten.

- Ez duala ikusten? Ba, aurrean daukaguz eta joan hadi Optika Mendiara, bistatik gaizki habil eta...

- Joan beharko diat, bai...

- Beno, banihoak... Aldameneko honekin tragoxka bat edo beste hartu behar dizkiat...

- Al... aldamenean...? Hor ez zegok inor eta...

- Izango ez duk ba? Azkeneko galtzen duan laguna duk hau, "Itxaropena"... Gero arte.

- Motel, motel...! Hori duk bista...! Banihoak optikara.

Amen.

*Abel Enbeita*

## postari

# Udal ordenantzak

Gasteizko Udalaren Ordenantzak direla eta, zenbait gogoeta egin beharra dago orain arteko egoera eta hemendik aurrerako urrats guztiak era egokian ulertzearen.

Lehenik eta behin esan behar da aspaldiko kontua dela honakoa, izan ere, 1983an Gasteizko Udalak euskararen erabilpenaren inguruko mozio bat onartu zuen arren, gaur egun dagoen egoera ikusita legedia ez dela behar bezala betetzen esan dezakegu.

Bigarrenik, Gasteizko egoera soziolinguitikoa erabat ezberdina da arestikoaren aldean. Hau da, azken urteotan, euskararen eremua gero eta zabalagoa da, batzuek bestelako iritzia izan badute ere. Honen erakusgai izan daiteke Gasteizko biztanlegoaren %10-20 bitartekoa euskaldun izatea; gure auzo, kale, denda eta abarrekoetan euskararen agerrera gero eta nabariagoa izatea edota Gizarte Etxetan euskara ikastaroak antolatuta izana.

Hirugarrenik, euskaldunon eskubide linguistikokoak ez dira, orohar, aintzat hartzen. Ohikoak dira euskaldunoi jartzen dizkiguten eragozpenak, batez ere Udal erakundeetatik igortzen dizkiguten inprimaketan. Hauek gaztelera hutsez jasotzen ditugu gehienetan eta, gure eskubideak aldarrikatuz, itzulpena egin dezaten eskatzen diegunean, akats nabarmenak agertu ohi dira. Beste horrenbeste gertatzen da errotulazioarekin, seinalizazioarekin edo harrera zerbitzuetan euskaldunik ez dagoenean.

Laugarrenik, Euskaltzaleon Elkargunean dihardugunok, behinola lanean hasi ginen benetako Udal Ordenantzak kaleratzeko asmoz, euskararen normalizazioa erdietsi ahal izateko.

Azkenik, Euskaltzaleon Elkargunea eta talde politiko gehien arteko adostasuna -EAJ barne- lortu zen Udal Ordenantzak aurrera ateratzeko. Hala eta guztiz ere, Jose

**TESTU LIBURUAK**  
eskatu zure testu liburuak  
eta ez estutu gero

Koldo Mitxelena • deskontu bereziak

**zure euskal  
LIBURUDENDA**

Plaza Berria, 14  
Virgen Blanca, 1  
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

**2** *errikoia*

**MIKO**

izozkiak



## ak ekarrita



Angel Cuerda alkatearen adierazpenen ildotik, edonor kontura daiteke atzerapenak baino ez ditugula lortu. Hori guztia gutxi baitz alkate jaunaren proposamena erabat hankamotza da kontuan hartzen badugu eztabaidatu gabeko proposamena dela, zehaztapenik gabekoa eta Gasteizko hiritarren eskubide linguistiko guztiak aintzakotzat hartzen ez dituela. Gainera, behin eta berriro atzeratzen ari da Udal Ordenantzen inguruko eztabaidarekin hasteko lan batzorearen osaketa, guztion kalterako delarik.

Beraz, gaur egun dauden arazo guztiak ekiditeko, euskararen zokoratze egoerei aurre egin behar diegu behin betiko normalizazioa lortuko badugu. Honetaz gain, Udal erakundeetan bertan euskarari ematen zaion tratamendua aztertu beharko genuke, hiritarrekiko harremanetan, barne agirietan, errotulazioan zein beste hainbat alorretan euskararen presentzia sustatzeko.

Orain arte mota askotako kanpainak, guztiok ezagunak, burutu izan dira gure hizkuntzari zor zaion tratamendua emateko. Zoritxarrez, alferrikako lan eskerga izan da. Lotsagarria benetan! Ekin diezaioگون ganoraz, behingoz, honako lan honi. Guztion onerako izango da.

**ROBERTO GUTIÉRREZ MATEOS (AEKIDEA)**

# Eskuindar eta ezkertiarrak

Irakurleak, izenburua irakurtzean, pentsa dezake alderdi politikoei buruzko zerbait idatzi dudala gaurkoan, baina ez da horrela. Pertsonak duten ahalmen bati buruz arituko naiz, hau da, gorputzaren ezker partea edo eta eskuin partea erabiltzeko daukagun trebetasunaz.

Ez dut gauza berririk esango pertsona normal batek eskuina edo ezkerra trebeagoa izan ohi duela aipatzen baldin badut. Beste modu batean esanda, gorputzaren alde biak ez dute eginkizun berdina betetzen. Eta are gehiago, alde bat bestea baino trebeagoa ez balitzateke, ezingo genuke bizi. Aipatu dudan ideia horretan datza kakoa. Zer egin eskuinekin? Zer egin ezkertiekin? Irakaskuntzaren bitartez denak eskuin bihurtu? Edo hezkuntza neutral baten bitartez bakoitza izan dadila naturak egin duen bezalakoa?

Denok dakigu diktaturak ez duela ezer aske uzten eta gai hau ere ez. Orain dela urte gutxi ezkertiar ez

zuen gizartearen onespenean, eskuin bihurtu behar zuen nahi eta nahiez. Hara nola diskriminatzen ziren jaiotzez ezkertiar zirenak, hezkuntza eta gizarte errepresio baten bitartez.

Demokraziak ezin du horrelakorik egin. Konstituzioaren laugarren artikulua inor ez diskriminatzea agintzen du eta bete-betean ordenatzen du jaiotzez ezkertia edo eskumati denari errespetu osoa zor zaiaola.

Hezkuntza neutral bat eskatzen du demokraziak gai honetan, baita gizarte neutral bat ere, norberak, nahiz ezkerri nahiz eskumati izan, bizitzan atsegin bila dezan bereiztasun horren gainetik. Horregatik lerro hauen bidez, gure herrikide guztiei tolerantzia eta laguntza eskatzera ausartuko naiz, bereziki ezkerri jaio direnen alde, berdintasuna lor dezaten.

**Alberto Ansola**



## Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
  - 36 errezeta ezberdin
- ERAMAN ETA JAN**  
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran •



# Denborak gelditzen ez dituen orratzak

**G**izakiak denbora neurtzen ikasi zuenetik gauza guztien adina zenbatu egiten dugu: gizakiena, eraikuntzarena, lurrarena edo unibertsoarena. Guretzat existitzen den zernahik bere ordua eta bere momentua du. Horretan dihardute aspaldidanik Gasteizko dorreetako erlojuek. Gasteiztar belaunaldi askori adierazi die ordua San Pedro, San Miguel, Santa Maria, San Vicente eta Udaletxeko erlojuek, besteak beste. Horiexek dira, oraindik ere, kalean dabilenari zer ordu den esaten dietenak. Pedro Sueskun udal erlojeroa da erloju horien funtzionamendu onaz arduratzen den laguna. Berak aitortu digunez lan honetan aritzeko sasoi onean egon behar da eta ez zaio altuerari beldurrik izan behar. □



**GAUR EGUNEKO** Gasteizen 8 dorre erloju aurki daitezke. Dorreetan lau eta hiriko eraikin esanguratsuetako hormetan beste lau: Udaletxean, Iparralde gizarte-etxean, Zezen plazan eta San Cristobal elizan. Guztiak mekanikoak dira. San Pedro, San Vicente eta San Miguel elizakoei, hala ere eskuz kuerda eman behar zaie. Lehenengo biei 8 egunean behin

eta azkenak 100 orduko autonomia du. Guztietan zaharrena Andra Mari Zuriaren enparantzan dagoena da, San Miguel elizakoa hain zuzen ere. Abuztuaren 4ean urtero milaka gasteiztar egoten da 2 metro t'erdiko esfera duen erloju horri begira. Fernando VII.a erregek, opari gisa eman zion Gasteizko herriari eta 150 urte baino gehiago ditu. Gaur egun mututurik dago



**Ardatz** itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

**IGZO**  
**xurrut**  
  
**KUTXI 103**  
**GASTEIZ**



baina abuztuaren 4ean udal erlojeroak eskuz jotzen ditu kanpaiak. Berriena berriz, Santa Maria katedralekoa, 1983. urtekoa da aintzinakoa tximista batek ondatu baitzuen. Erloju guzti hauen mantenimenduz arduratzen da Pedro Sueskun udal erlojeroa.

### Dorre erlojuen funtzioa

Dorre erlojuak funtzio garrantzitsua betetzen dute hainbat eta hainbat gasteiztarrentzat. Hiritar askok zuzentzen du begirada erloju horietara. "Etxeandia erlojeroaren ondorengoa izan arren, lan honetan hasi nintzenean dorreetako erlojuak gauza sinbolikoak zirela uste nuen. Jendeak ez ziela kasorik egiten uste nuen eta oker nenbilen. Gasteiztar asko erloju hauen hotsez gidatzen da. Adibidez, Santa Mariako erlojua gelditu zenean 010 zerbitzuan dei ugari jaso genituen zer gertatzen galdetuz. Alde zaharreko biztanle asko erloju hauen soinuagatik gidatzen da. Orain udaletxeak geldirik dago eta jendea galdezka dabil" dio Pedro Sueskunek.

"Erloju hauen funtzionamendua oso erraza da. Hormako erloju bat bezalakoak dira baina erraminta txiki bat erabili ordez haundiagoa erabili behar duzu" azaldu digu Sueskunek. San Miguel eta Zezen plazakoa ezik beste dorre erlojuak Gasteizen bertan egindakoak dira, Jesus

Obrososen ondoan zegoen lantegi batean Vda. de Murgiak eginikoak, alegia. "Oso erloju onak ziren lantegi honek egiten zituenak, kalitate haundikoak. Vda. de Murgiak munduko leku askotara bidali izan ditu erlojuak: Hego Amerikara eta abar... Gaur egun, zoritxarrez, Estatu osoan horrelako lantegi bakarra dago Katalunia aldean" adierazi digu Pedro erlojeroak.

### Erlojero ofizioa


Sueskuni ez diogu erlojero itxurarik hartu. 33 urteko gaztea da bera. "Ni lan honetan duela 3 urte hasi nintzen. Udaletxeak adjudikazio bat atera zuen eta Miriam erlojuak, gure entpresak, eskuratu zuen lan horren ardura. Ni txikitatik erlojuen artean hazi izan naiz, beraz ogibide hau nolabait nire aurrekoengandik datorkit. Egia da lan honetarako forma onean egon behar duzula, dorreetara igotzeko eskailaera asko eta asko igo behar dituzu eta kuerda ematearena ez da txantxetako lana, batez ere San Pedro elizan. Egunero 8km egiten ditut gure ardurapean ditugun erlojuak bisitatzen. Matxuraren bat gertatzen bada beherala joaten naiz konpontzera. Herriko erloju dorretan ere konponketak egiten ditugu. Bai han eta hemen useok askotan gauzak erraz jartzen ez dizkiguten arren."

Gasteizek dituen dorre erlojuak argiztatuta daude. "Gure entpresak lan hau hartu zuenean erloju guztiak argiztatzea eskatu genion Uda-lari. Gaur egun Gasteiz da erloju mekanikoa k gordetzen dituen hiri bakarretariko bat. Gainera egoera oso onean daude. Erloju dorre hauek gure bihotzak beza-

lakoak dira, urteko 365 egunetan dabilta lanean" dio erlojero munizipalak.

Abuztuaren 4a Pedro Sueskunentzat berezia da oso. San Migueleko dorrean kokaturik, begien aurrean izaten duen ikusmira zoragarria da benetan. Egun horretan, San Migueleko dorreko erlojuak bakarrik jotzen du. Erloju hori duela 40 urte isilarazi zuten zarata handia ateratzen zuela eta. "Abuztuaren 4ean eta 10ean neuk jotzen dut eskuz".

*Karlos Fdz de Betño*



### UDABERRIA

elkartea

•Euskaltegi Homologatua  
-Helduentzat  
-Ume eta gaztetxoentzat

•Musika eskola  
•Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65  
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33  
**GASTEIZ**

### EYSKAL OKELA

## LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24  
Tfnoa: 25 56 90  
**GASTEIZ**



jo eta ke  
**TXAPELARRI**  
**TABERNA**  
KUTXI  
kalean

# Ez al dakizu euskara dela egiten gaituena?



**E**uskal Herrian Euskaraz taldearen "Euskal Herriak izan behar du" kanpainak abertzale erdaldunen kontzientziari astindu on bat emateko helburua du; koherentzia bultzatu eta euskara Euskal Herriaren eraikitze prozesuaren zutabea izan behar duela aldarrikatuko du EHEk udazken honetan zehar. Maila teorikotik praktikarako jauzia proposatzen du elkarteak: "Euskararen alde lan egitea garrantzitsua da baina euskaraz lan egiten hasi behar dela" azpimarratu dute.



## EHE - EN USTEZ

Euskal Herriak euskalduna eta batua izan behar du: "Gaia horri buruz egindako inkesten arabera, gainera, hori da euskal herritar gehienek nahia".

Euskarak Euskal Herria duen estatus eta egoera erakunde ezberdinen esku dagoela gogoratu du elkarteak, "egoera horren aurrean, Euskal Herria eraiki behar dela argi daukagu, egun Erdal Herrian bizi garela uste baitugu guk. Eta eraikitze prozesu horretan zutabea euskarak izan behar du".

## Kanpainaren

mezua gizarte osoari igorri nahi dioten arren, zehazki abertzale direnei zuzendu zaitzaizkiela onartzen du elkarteak. Horretarako bi arrazoi daude: bata, "abertzale batek errezago ulertu beharko luke euskararen alde aritzearen beharra"; bestea, "kanpaina, abertzale erdaldunen kontzien-tzia eta koherentziari astindu on bat emateko aprobetxatu nahi dugula da".

## Teoriatik praktikara

Izan ere, euskararen alde lan egiteak duen garrantziari buruz euskaltzale gehienak kontzientziaturik daudela badirudi ere, euskara erabiltzerakoan betiko arazoek hortxe jarraitzen dute. Horregatik euskaraz lan egin beharra azpimarratu nahi du kanpaina berriak: "Norberaren arloan, lanean, eta gainerako arloetan euskeraz lan egin behar dugu".

Arazo horretan erakundeek egiten duten lanak hiritarren jokaera baldintzatzen duenez, EHEk administrazioaren hainbat ordezkariarekin biltzeko asmoa du. "Gure iritziz, euskararen normalizazioa lortzeko

# arcaya

Portal de Villarreal, 22-24  
Tfnoa: 26 06 58  
Portal del Rey, 21  
Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA  
IRUDIA  
ARGIZTAPENA  
ELEKTRAGAILUAK  
OPARIGAIK

# Ederki

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN  
Erreportaiak: ezteiak, komunikioak, bataioak  
Estudioko argazkiak  
Bideo industriala  
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

# euskaldun

ez dute euskararen aldeko taldeek bakarrik lan egin behar, erakundeek ere aurrera pausua emateko ardura dute." Horrek ez du esan nahi, arazoaren giltza beren esku dagoenik: "Hiritarrok erakundeen euskalduntzea aldarrikatzea baino zerbait gehiago egin behar dugu, guztiok landu behar dugu euskara, bakoitzak bere arloan".

Euskarak erdaldunak behar ote dituen ere zehaztu nahi izango da kanpainan (ikus ekitaldiak). "Euskara elkarte, euskaltegi eta abarren mezua euskaldunei zuzentzen zaie orokorrean, edo behintzat, euskaraz ematen denez, euskaldunok bakarrik gara horiek ulertzeko gai". Euskara errekeruperatzeko erdaldunak euskaldundu behar direla nahiko argi dagoenez "erdaldunekiko zubi bat eraikitzearen beharraz hausnarketatxo bat egingo dugu"

## Politika eta politikeria

"Euskara politizatu egiten dugula da euskararen aurka daudenek erabiltzen duten argudioa, baina beraiek erderaren aldeko jarrera hartzean, ez al dute politizatzen? Gure ustez, ez dugu arazoa politikoa dela esateko beldurrik izan behar" azaldu du Arabako EHEko arduradunak. Bere ustez, politika eta euskara bereizi behar direla diotenek, askotan, argudio hori neurri zehatzak ez hartzeko erabili ohi dute. "Politika tartean dago, euskara berreskuratzeko zutabe finkoak jarri behar direlako jarduera politikoaren bitartez". Hori bai, politika eta politikeria ez dira nahastu behar EHEren ustez: "gauza bat da arazoa politikoa dela onartzea eta beste bat, eta oso ezberdina, euskara trukerako txanpon moduan erabiltzea".



Euskararen egoerari buruz hitz egitean EHEk ez omen du baikortasunerako arrazoirik aurkitzen. "Azterketa bat egin dugu eta ezin da esan egoera ezin hobean gaudenik". Berebiziko garrantzia duten hainbat sektoretan hutsune nabarmenak aurkitu (irakaskuntza, komunikabideak,...) eta euskararen gizarte mugimenduen

erakunde nazional baten beharra -"EHEK EKBren aldeko apustua egiten du"-, elkarlana, presio eta borroka ideologikoa, guztion inplikazioa...

*Leire Lopez de Aberasturi*

# ekitaldiak

"Euskal Herriak izan behar du" kanpainaren lehen ekitaldia urriaren 12ko manifestazio nazionala izan zen. Jendearen erantzun bikaina izan zuen leheneago zita horrek baina abiapuntua baino ez zen izan.

Hemendik aurrera honako ekitaldi hauek burutuko dira:

### - MAHAI INGURUA.

"Euskarak erdaldunak behar ditu?"  
**Partaideak:** Jose Javier Iñigo, EKBko lehendakaria eta Iñaki Berezibar, Errexalako kidea.  
**Eguna:** Azaroaren 20, asteazkena

**Ordua:** arratsaldeko 7'30ak  
**Lekua:** Luis de Ajuria Aretoa

- **ERAKUSKETA IBILTARIA:** euskararekin zer ikusia duten komiki, eskultura eta marrazkiak.

- **DISKOA:** Durangoko azokarako disko bat aterako du EHEk euskararekin zerikusia duten kanta berriekin.  
**Partaideak:** Balerdi Balerdi, Bittor Aiape, Gari, Bizkar Hezurra, Guk, Anje Duhalde, Tiakun, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Exkixu, Sorotan Bele, Txomin Artola, Deabruak Teilatueta, Etsaiak eta Negu Gorriak.

premia larrienak zehaztu ditu ikerketak:

## ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak  
 automatismoak  
 girotzeko musika  
 eta segurtasuna

# GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95  
 Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

**azkarprint**  
 Cercas Bajas, 4  
 Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA  
 EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak  
 ere egiten ditugu**

**GASTEIZ**

**INPRIMATEGIA**

# Agur, Oskarbi!

Kirolak

# amets eder baten amaiera

“**gogoa ematen du dena bertan behera utzi eta pikutara bidaltzeko**”

**U** PV Oskarbi voleyball taldeak, Ohorezko Mailan genuen emakumezkoen talde bakarrak, ezin izango du aurtengo liga txapelketan parte hartu iaz mailari eustea lortu arren. Azken orduan ezin izan dute txapelketa horretan aritzeko behar adina diru eskuratu eta taldea desagertu egin da. Ruth entrenatzaileak eman digu guztiaren berri.

### Zein izan da desagertzearen arrazoia?

Ohorezko mailan aritzeko dirua behar da: bidaiak, jokalarien fitxak, epailea eta bestelakoak ordaintzeko dirua ezinbestekoa da eta diru hori ez dugu lortu. Azken unera arte hor ibili gara, batera eta bestera, baina ez da posible izan.

### Azken momentura arte ez zenuten esperantzarik galdu?

Espainiako federazioak lehenengo jardunaldiko patidua ez jolasteko baimena eman zigun eta 2. partidua hasi aurreko asteartea genuen dirua lortzeko azken epea. Azken momentuan enpresa bat interesatu zen baina harreman hauek gauzatzeko denbora behar da eta guri

horixe zen falta zitzai-guna. Gurea kirol minoritarioa da, emakumezkoena gai-nera, eta jende askok ez du ezagutzen. Azkenean ezin izan genuen ezer lortu eta Ohorezko Maila-tik kanpo geratu ginen.

### Eta orain zer?

Penagarria da baina taldea ez da Ohorezko Mailan aterako eta kluba bannandu egin da. Umeez jarraituko dute baina beste kirol elkarte bat sortu behar dugu. Euskal herriko federazioak 2. mailan

jokatzeo aukera eman digu eta horretan ari gara lanean orain. Jubenilekin eta goiko ekipotik etorritako seniorrekin aterako gara. Nahiko jende gaztea da baina etorkizun ona duena.

### Beraz, berriz ere harrobierekin hasi behar duzue lanean?

Ez zaigu beste aukerarik geratzen. Urte askotan borrokan aritu gara, hemengo jendearekin gora igotzea lortu dugu, urte on bat egin eta muturrekoa jasotzen duzu azken orduan. Hori oso gogorra da. Gogoa ematen du dena bertan behera utzi eta pikutara bidaltzeko. Baina konturatzen zara lan asko egin dugula, jendea hor dagoela eta azkenean aurrera egin behar duzula. Egia esan beste filoso-



fia bat da eta jokalarientzat ere zaila da. Orain jubenilek bigarren mailan jokatu behar dute eta hortik gora ez daukate ezer. Beren etorkizuna nolabait mugatua dago.

### Iazko urteaz nolako balorazioa egiten duzue?

Oro har oso urte ona izan zen. Istorio berri baten hasiera zen. Hasiera horrek, ordea, ez du jarraipenik izan. Hori da penagarria. Guretzat Ohorezko Mailan lehen urtea zen eta gogorra izan zen. Jokuari dagokionez alde handia dago lehen mailaren eta ohorezkoaren artean. Hala ere mailari eustea lortu genuen eta gure helburuak bete genituen. Aurrekontuarekin ere aurrera ateratzea lortu genuen eta komunikabide batzuek segimendua ere egin ziguten.

### Emakumezkoen taldea izateak izan du eraginik zuen desagertzean?

Gauza bat argi dago: Edozein kirola delarik ere, emaku-

mezekoen kirolak komunikabideetan duen presentzia oso urria da eta jendearengan duen eragina txikia. Tristea da baina horrela da. Hori argi daukat. Beraz, horrek ere izan du eraginik. Jendeak zera galde-tzen zidan askotan: baina zergatik ez zarete aterako? Ba, voleyballa delako eta emakumezkoen taldea garelako. Eta kitto!

Xabier Zabaleta



**BAR KLAKÉ**

KVTXA, 2  
TFNO. 143883  
GASTEIZ

**JANTZI ETA OPARIAK**

Kutxilleria, 27  
Tfnoa: 26 07 10  
GASTEIZ

**GORETTI**

**ILEAPAINDEGIA**

Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA  
Tfno: 12 08 88  
01001 - GASTEIZ

## Kultur Hitzaldiak

Gasteizko Udaleko Kultura  
Sailak eta Euskal Herriko  
Unibertsitateak antolatutak

## Nazioarteko Antzerki Jaialdia

## Augustin Zubikarai Literatur Sariak

Ondarroako Udal Euskara  
Zerbitzua eta Bizkaiko Foru  
Aldundiaren eskutik

## Bertso paper, argazki, diapositiba eta Bideo Leioa 96 Lehiaketa

Leioa Elizateko Udalak  
antolatua

berri laburrak eta  
beste hainbat gauza  
interesgarri

# Kulturari

urriak 12  
ilargia zer?  
eta eguzkia  
aurrez aurre



ASTROLOGIA

Asier P.H.



argazkiak



  
**euskarri**

Pedro Asua, 2, 3 a  
01008 Gasteiz  
tel / fax: 22 21 53

euskarri kirol  
elkarteari lagundu  
nahi diot, bazkide  
izanik

**euskara**  
kirol guztietara

Izena: \_\_\_\_\_  
Abizenak: \_\_\_\_\_  
Kalea: \_\_\_\_\_ zkia: \_\_ solairua: \_\_  
Herria: \_\_\_\_\_ Posta kodea: \_\_\_\_\_  
Herrialdea: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_  
Kuota: **1.000 pzta.** urtean  
Kontu korrantea:

entitatea    bulegoa    kontrol  
zkia    kontu zenbakia

EUSKARRI entrepresa eta dendetako eskaintzak eta beharpenak lortzen saiatuko da bazkideei begira

LEHIAKETAK

AUGUSTIN ZUBIKARAI NARRAZIO SARIAK

199. EDIZIOA. 1996

- Edozein lan onartuko da, bizkaieraz edo batueraz, argitaratu gabea eta beste lehiaketa batean saritua izan ez bada. Narrazio bakoitzeko DIN-A4ko 10 orrialde gutxienez eta 25 gehienez idatz daitezke. Lanak hartzeko azken eguna 1996ko azaroaren 15a izango da.

SARIAK:

1.- 140.000 pezeta

2.- 100.000 pezeta

3.- 85.000 pezeta

Informazio gehiago eskura nahi izatekotan deitu, arren, honako telefono zenbakira:

(94) 613 43 44

Ondarroako Udaleko Euskara Zerbitzua

Kanttoipe, 3

48700 ONDARROA

babeslea:

Bizkaiko Foru Aldundia

XXVII. SAN PRUDENTZIO argazki lehiaketa

Argazkiak abenduaren 8ra arte bidal daitezke honako helbide honetara:

Sociedad Fotografica Alavesa  
Pedro Asua 2 - 2 1672 Posta  
Kutxatila  
01080 Gasteiz

antolatzailea:

Sociedad Fotográfica Alavesa

babeslea:

Arabako Foru Aldundia



Zuloa-irudia

komiki jardunaldiak  
azaroaren 4tik 9ra

**KONTUZ**  
azaroaren  
4tik 9ra

astelehena 4

'arte eta narrazioaren erakusgarri'

asteartea 5

'komikia eta ikusentzunezkoak'

asteazkena 6

'komikia antzerkira moldatu'

osteguna 7

'Manga, hizkera berria'

ostirala 8

'jarrera alternatiba'

larunbata 9

'komiki tailerrak'



Hezkuntza Eleaniztunari Buruzko III. Nazioarteko Jardunaldiak

Eskola eleaniztunaren planifikazioa eta eraketa

GASTEIZ

96KO AZAROAK 7-8

'Gaztelueta Fundazioak' azaroaren 7 eta 8an Gasteizko "Europa" Kongresu Jauregian burutuko diren HEZKUNTZA ELEANIZTUNARI BURUZKO III. NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK antolatu ditu. Jardunaldi buruzko informazioa eta zehaztasunak jasotzeko helbidea eta telefonoak honakoak dira:

GAZTELUETA FUNDAZIOA

213 Postakutxa

48930 ARRETA-GETXO

Tel. (94) 464 90 45

Faxa (94) 464 83 61

**BABESLEA:**



EUSKO

JAURLARITZA

KULTURA SAILA

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



KOADROAK  
MOLDURAK  
LAMINAK  
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20





**BERTSOKOMIK**

ARGITARATZAILEA:

Bertsozaleak Kultur Elkartea

**marrazkilariak:**

Asisko, Mattin, Iñigo Sarasola...

**gidoilariak:**

Sebastian Lizaso, Andoni Egaña,  
Unai Iturriaga, Asier Iriondo...

Kolorez eta zuri-beltzez

SALNEURRIA: 750 PZTA.

Bertsolari hiruhilabetekariak edizio berezia argitara eman du honakoan: Bertsokomik. Bertsolariek beraiek idatzitako gidoi eta euskal marrazkigile ezagunenek egokituriko marrazkiak agertzen dira bertan, beti ere, bertsoen mundua gai bezala edukita.

Aipagarriak dira, besteak beste, Asisko marrazkilari nafarrak egindako komiki garratza, edota Egaña berak idatzi eta marrazturiko Asterix eta Obelixen istorioen bertso nahiko bitxia. Baina jaso ditugun eritzi gehienen arabera, komikirik onena bai gidoi eta baita marrazkiei dagokionez, Asier Iriondo bertsolariak eta Iñigo Sarasola Geu Gasteizko komikilariak egokiturikoa omen da. Zinez, barre ederrak egingo dituzue Rikardo Glez. de Durana bertsolariari gertatzen zaizkionak irakurrita.



Asier Iriondo eta Iñigo Sarasolaren komikiaren puxka bat

**TXANGOAK**

**GEUrekin mendira**

**ZALDUONDOTIK ARANTZAZURA URBIATIK (AZAROAREN 17AN)**

**IRTEERA:** goizeko bederatziak eta laurdenetan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean.

Autobusa izango da.

**ITZULERA:** bostak aldera

Adi: ez ahaztu hamaiketako edo/eta bazkaria, eta arropa eta oinetako egokiak!

**BERTSOLARITZA**

**Bizkai-Araba bertso txapelketa**

Joan den urriaren 27an hasi zen Bizkai-Araba bertso txapelketaren edizio berria. **Gatikan** izan zen lehen kanporaketa eta **abenduaren 22an** izango da finala **Bilboko Arriaga antzokian**. Edizio berri honetan inoiz baino bertsolari gehiago arituko dira lehian eta horien artean 6 izango dira arabarrak. Honako hauexek: **OIHANE PEREA, DANI CASTAÑO, ZIGOR ENBEITA, ASIER OTAMENDI, ASIER IRIONDO** eta **RIKARDO GONZALEZ DE DURANA**.

Zorte on guztiei!

**ABESBATZA**

GEU Elkartean abesbatza egiteko asmotan gabilta, baina horretarako, esan beharrik ez dago, zeuen partaidetza behar dugu. Nork zuzendu badaukagu, orain abeslariak behar ditugu.

Beraz, kantatzea gustokoa duzuen guztiok badaukazue nora jo.

Hona hemen izena emateko edo argibideak eskatzeko telefonoak:

18 76 51 (bulego-orduetan) edo 22 93 29.

**OLARIZU MENDI**  
  
 HERRIKO TABERNA  
 JOSE URUÑELA  
 KALEAN

**GASTEIZKO**  
  
**IRUBIDE**  
 RAMIRO DE MAEZTU KALEAN HERRIKO TABERNA  
**HERRIKO TABERNAK**

**ALDE ZAHARRA**  
  
 "SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

# Euskaltegietakako ikasleen kopurua mantendu egin da

Hasi berria den ikasturte honetan 5.000 ikasle inguruk eman du izena Arabako euskaltegiren batean. Euskaltegiek emandako datuen arabera, iazkoarekin alderatuz, matrikulazio kopuruak ez du gora egin baina mantendu egin da, bai Gasteizen eta baita Araban ere. Euskaltegietak arduradunen ustetan bi gauza dira nabarmendu beharrekoak. Batetik ikasleen kopurua bera eta, bestetik, goi mailetan gero eta ikasle gehiago ari dela. Talde bereziei dagokienez, (IRALE, IVAP, Guraso taldeak, Kutxakoak...), batetik

bestera gorabehera nabarmenak badaude ere, oro har, hemen ere ikasleen kopurua iazkoaren antzekoa da. Euskaltegiek emandako zenbakiak honako hauek dira: Udaberria euskaltegian 800 ikasle inguruk eman du izena; AEKan 800 ikasle ari dira Gasteizen eta 1300tik gora Araba osoa kontutan harturik; IKAn, Gasteizko hiru euskaltegietan 2000 ikasle baino gehiago dira ikasten ari direnak eta Araban beste 300ek eman dute izena; Hegoalde euskaltegian 500 ikaslek egingo dituzte ikasketak ikasturte honetan.



# Zuloa iruditan

Aspaldi xamar ekin zion Pinto Kaleko Zuloa dendak Kultur-ekintzak antolatzeari. Ezagunak dira bertan egin diren diskoen aurkezpenak, kontzertuak eta antzeko beste zenbait ekitaldi. Orain, bi solairuko denda berria ireki dute Korreria kalean, eta lekua egokiagoa denez, beheko solairua erabiliko dute antolatzen dituzten kultur ekitaldietarako. Jabeen esanetan, denda berri honek "irudia izango du abiapuntu". Irudigintza arloko bi alde nabarmendu nahi dituzte batez ere: Komikia eta irudia bera. Dendan aurkituko dituzu, era berean, irudidun liburuak (arteak, argazkigintza...), posterrak, ilustrazioak eta abar.



Beraz, Zuloa Irudiak denda arruntek eskaintzen dutena baino zebait gehiago eskaini nahi bere bezeroei. Azaroan esaterako, komikiari buruzko lehenengo ihardunaldiak antolatu dituzte 4tik 9ra bitartean. Kultur Agendan ikus dezakezue ihardunaldi hauen egitaraua.

# ASAJER

Erreabilitazioan diren Arabako jokalarien elkarteak bideo lehiaketa bat antolatu du "Jokoaren zaletasuna: Errealitatea ala fantasia" izenburuarekin. Gehienok jolastu izan dugu inoiz loterian, apostatu egin dugu karta joko edo kiroletan... Zaletasun horren bidez, dibertitu egiten gara eta ingurukoekin harremanetan jartzen gara. Batzuetan, ordea, jokoaren menpe jar gaitezke eta arazoak sor daitezke. Hori da ASAJERkoek erakutsi eta ebitatu nahi dutena. Lanak entregatzeko epea azaroaren 29an amaituko da eta elkartearen egoitzan entregatu behar dira: General Alava kalea 25, 1. esk.

Elkarte hau orain dela zazpi urte hasi zen gaiso hauekin lanean Sta. María Elizan. Etenaldi baten ondoren 90an berriro ekin zioten lanari dagoeneko ASAJER izenarekin. Bi helburu nagusi dituztela azpimarratu digu elkarteko presidentek. Alde batetik prebentzioa egitea. Joko zaletasunaren menpe erortzeko arriskua duten taldeekin lan egiten dute (etxeoandreak, gazteak...); eta beste aldetik, menpekotasuna duen jendeari laguntza ematea: ekitaldi edota hitzaldien bidez.

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m<sup>2</sup>) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m<sup>2</sup>-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrunbainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m<sup>2</sup>) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m<sup>2</sup>) • Bilar frantsesean eta amerikarrear iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

**ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...**

**KIROLDEGIA**  
**CENTRO DEPORTIVO**  
C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36  
01006 VITORIA-GASTEIZ

# Antzerki Jaialdia euskaraz?



dute. Alfred Jarryren zikloaren barruan **Ububabel** antzezlan taularatuko dute. Alfred Jarryk "Ubu encahine" 1900. urtean idatzi zuen eta lau urte geroago eskandalua eragin zuen obra horrek.

Bigarren euskarazko antzezlan, umei zuzendutakoa da. **Jaberik gabeko zopantzia**, Michale Enderen adaptazio bat da eta **TEATRO IRUÑA**-k aurkeztuko du. Jai giroko montaita da, barre egin eta dibirtitzeko aukera ematen duena. **Abenduaren 1ean** eskanaratuko da.

Hirugarren lana **abenduaren 12an** taularatuko da. Orain urte bete arrakasta lortu zuen El Florido Pensil liburuaren adaptazioa **TANTTAKA TEATRO**ren eskutik. Antzezlan honek gerra osteko

garaiko eskola giroa erakusten digu eskenatoki desberdinekin: eskola bera, auzoko zinea, etxeko irratia, eliza, prentsa... Bost euskal aktore ezagunek bizitza ematen diete obrako protagonista guztiei.



Gasteizko antzerki jaialdiaren barruan, euskarazko hiru lan izango dira ikusgai azaroa eta abendua bitartean:

Euskarazko lehen antzezlan **azaroaren 12an TAUN TAUN** taldekoek eskainiko



# The Allnigthers-en lan berria



Gasteizko talde honek joan den hilabetan bere bigarren diskoaren aurkezpena egin zuen Zuloa Irudia denda berrian.

Orain arte egin duten bezala, **Shot** estudioetan grabatu zuten eta gero disketxea bilatu zuen, azkenean Kataluinako Al.leluia izan da ohore hau izan duena.

Azpimarratu "vinilo" formatoan ere kaleratu dutela, "asko gustatzen zaigulako, gainera bi abesti gehiago eskeintzen digu formato honetan -single batean-". Horrela ere bere betiko estiloari ekin diote, baina soinu desberdinekin, blues, R&B, boogie, eta jazza ere entzun dezakezu "**keep on keepin'on**" lan berri honetan.

Gustora azaldu zitzaigun bosteko hau aurkezpenean, hor argi utzi zituzten bere eginbeharrak, eta etorkizunerako dauzkaten proiektuak.

Hau irakurtzen duzunean, diskoaren aurkezpena egina egingo dute Circulo Diskotekan. Oso gomendarria.

David Alvez

kafetegi  
liburudenda  
erakustaretoa

**Caruso** ENRIKE EGUREN, 9  
24 86 99 • GASTEIZ

J A T E T X E A

H I U A K

Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47  
•GASTEIZ

ARTEPAN  
Artisau  
Okindegia eta  
Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37

# AMILAMIA: iratxoek egindako literatura

**ORAIN HAMAR** urte inguru kaleratu zen lehen aldiz Amilamia aldizkaria. Ordutik 16 alek ikusi dute argia eta ospe handiko autoreekin batera, idazle ezezagun askok ere izan dute lekua aldizkariako orrietan.

Udazken honetatik aurrera bere buruaz harro egoteko beste arrazoi bat ere badu Amilamiak: Estatu Batuetako Idazle eta Artisten Nazioarteko Elkarteak urteko literatur aldizkari onenari eskainitako saria eman dio. Nola uler liteke horrelako zabalkundea eta arrakasta? Jose Luis Pasarin aldizkariaren sortaile, bultzatzaile eta zuzendari denak eman digu erantzuna: Amilamiaren batek emandako indarrak eta aldizkariaren inguruan sortutako magiak egin dute hori posible.

Jose Luis Pasarin idazle gasteiztarrak alaba kuttuna bezala maite du Amilamia. Horregatik aldizkari sarituaz galdezka joan gatzazkionean lotsati itxura agertu digu. Umiltasun handiz hitzegiten du aldizkariak, ahotsa gehiegi goratu gabe, baina barru-barruan harro dagoela nabari zaio. Horretaz jabetzeko berarekin hitz gutxi batzuk egitea nahikoa da.

## Ardo artean

Valeriano Rodríguez, Marisol Arroniz eta Jose Luis Pasarin gasteiztarrak dira ideien sortaileak. Egaña inprentan hasi ziren eta dena eskuz egiten omen zuten. Lehenengo aleak gaur egun desagerturik dagoen Frantzia kaleko Tolosa tabernan ondu zituzten. Bertako nagusia lagun zutela hantxe biltzen ginen ardoz

**“d** irenik ez da sinestu behar;

**ez direla ez da esan behar”** dio euskal esaera batek. Ez dut uste Amilamia aldizkaria sorgindurik dagoenik, baina esan dezaket aldizkari horrek irakurleengan lilura, magia, xarma berezia sortzen duela.



inguraturiko bazter batean. “Nahi adina zerbeza eta

ardo genuen eskura, eta sekulako giroa gure artean. Hiru-lau hilabete besterik ez zuela iraungo uste genuen baina ibilbide luzea egin du dagoeneko aldizkariak”.

Aldizkariaren izena bilatzen ez zuten lan handirik izan. “Garai hartan Aita Barandiaranen Mitología vasca liburua irakurtzen ari nintzen eta Amilamiaren istorioek liluratuta nindutenez izen hori ematea erabaki genuen. Hortaz, aldizkaria bera sortu baino lehenago baguen izena” dio Jose Luisek.

Sortu zenetik aldizkari ireki eta plurala egitea izan dute helburu nagusi. Eta hiru asmo hauek bete beharko zituen aldizkari berriak: bat, portada bakoitza Arabako margolari batek egina izatea. Bi, euskara zaindu eta mimatzea. Horregatik euskarazko olerkiak erdialdeko orrietan sartzea erabaki zuten. Eta hiru, Jende guztiarentzat irekia egitea. Alde eta mota

guztietako idazleak nahi zituzten. Urte batzuk beranduago hasierako taldeko bi lagunek aldizkaria utzi beharra izan zuten eta Jose Luis Pasarinnek bakarrik aurrera sagitu zuen proiektuarekin.

## Kanpoan ezaguna


Hego eta Ipar Euskal Herrian banatzen da, batez ere, Amilamia aldizkaria. Baina Jose Luisek esan digunez, aldizkariak jarraitzaile asko ditu Euskal Herrikan. “Muga guztiak apurtu ditugu. Euskal Herrikan kanpo aldizkaria ezagutu egiten dute. Huelvan izan nintzen literatur topaketa batean eta guztiak ezagutzen zuten Amilamia. Espainiatik kanpo ere baditu jarraitzaileak eta Argentinatik edo beste lekuren batetik idazten didatenean aluzinatutik geratzen naiz”

Jose Luisek aitortu digunez, ez du ulertzen nola irits daitekeen hain leku urrunetara. “Hortxe dago Amilamiaren magia. Nik uste sorginen bat laguntzen ari zaidala. Amilamiak jeinu edo sorgin positiboak ziren eta galiziarrek

euskaldun izan nahi dugulako

**EUSKAL HERRIA  
EUSKALTEGI  
BIHURTU DUGU!**



izena eman  n!

Zurekin 600.000 irakasle izango gara  
2.300.000 ikasle euskalduntzeko

Jose

Peru 8 22 60 50    Mardones 8 26 35 40    Arana 30 25 24 00



e  
g  
m  
e  
n  
e  
k  
a  
o

diotenez ez dute sorginetan sinesten; baina egon badaude. Hori diote behintzat. Nire ustez aldizkariak nolabaiteko maitasuna lortzen du, zeren gainontzerakoan ez da normala horrelako aldizkari bat ateratzea”.

Aldizkariaren inguruan bestelako jarduera batzuk antolatu eta bultzatu nahi ditu Pasarinnek. “Behar bada tematia naizelako izango da baina ez dut aldizkaria kaleratzearekin konformatu nahi” Udan, esaterako, ekitaldi berezi bat burutu zuten Amilamia aldizkariaren jarraitzaileek: Lezeko kobazuloetara joan eta omenaldi bat eskaini zioten bertako Amilamiari poesia inprobisatuak errezitatzuz.

Horrez gain, ikasturte honetan gaztetxoentzat eskolarteko poesia lehiaketa bat ere antolatu dute euskaraz eta erdaraz. Izan ere Amilamiak jarraitzaile asko baititu gaztetxoaren artean. Hezkuntza sailaren laguntzari esker ikastetxetan aldizkari asko banatzen dira eta izugarriko poza ematen dio Jose Luisi 15,16 eta 17 urteko neska-mutilek aldizkarian argitaratzeko idazlanak bidaltzea. “Oso olerki onak egiten dituzte askotan. Arima poetikoa nabari zaie baina batzuetan gehiago landu beharra dute. Horretara bultzatu nahi ditugu lehiaketa honekin” dio Jose Luisek.

53 urteko gazteiztarrak txikitatik izan du idazteko afizioa. Zenbait aldizkaritan argitaratutako poemez gain, lau liburu kaleratu ditu gaur arte eta kontaketa laburrez osaturiko beste bat ere prestatu da. Bere azken lanak, edizio elebiduna, Argi eroaren haikuak izena du eta bertatik kopiatu ditugu ondorengo poematxo hauek:

*Van Gogh-ek  
benetazko ispilurik ez duten  
arimak salatzen ditu.*

*Zure betazalek ez ditzatela  
gure parien  
faroak lainotu.*

*Olerkaria  
gazela baten antzera hil egin zen  
odol-husten.*

*Nahia dantza  
zirikatzen dabil  
haizearekin.*

*Zalantzagarritasunez,  
olerkiak idazten ditut  
hitzak elkartzen ditut.*

*Sastakiak josi gauek,  
gure lazeriak  
kakasten ditugu*

*Nik esaldi baten  
oinazeak  
esplikatu beharko nizkizuke*

*Denborak zelatatzen gintuen  
eta hodeien gainean  
bidaiatzen genuen.*

ITZULPENAK: UNAI PASARIN

Haikua poesia japoniarraren ohiko adierazpenetako bat da, nahiz eta mendebaldean Ezra Pound eta hispano-amerikar idazle batzuek ere landu duten poesia eredu hau. Haikua olerki labur bat da, 17 silabakoa, hausnarketa eta sugerentziara bultzatzen duena. Haikua pintzelada bat da, zentzazio bat gutxi

gora-behera.

Haikua berez, ez da beste konponente kultural bat besterik, Virgilioren eglogak izan daitezkeen bezala edo galaiko-portugalдар kantigak, mortaja arabiarra edo euskal bertsolaritza zaharra.

(De la luz enajenada liburutik)

**Florida 35**

**adaka M madinabeitia**

altzariak ■ apaindurak  
Florida, 35 - tfnoa: 25 93 59  
GASTEIZ

# Javier Mauleon: "Bizitza bezala, txirrindularitza ere gaizki dago"

t

xirrindularientzat atsedena hartzeko garaia heldu da. Araban hamar txirrindulari ditugu tropel nagusian eta beren berri eman nahi dizuegu orrialdeotan. Horretarako, Javier Mauleon eta Izaskun Bengoarekin mintzatu gara. Elkarrizketatuek diotenez, oro har, txirrindulari arabarrak maila ona dute eta ondo ari dira tropelean. Baina, alde txarrik ere ikusten dute. Txirrindulari batzuek, gehienok bezalaxe, badakite zer diren sei hilabeteko lan kontratuak sinatzea.

Zaletu askorentzat Espainiako Itzulia-ekin amaitzen da denboraldia baina ez, ordea, txirrindularientzat. Elkarrizketa egin genionean Mauleon Asturiasera joatekoa zen, bertako lasterketa batean parte hartu behar zuen eta.

**GEU GASTEIZ:** Beti batetik bestera zabiltzate. Hori al da bizimodua?

**MAULEON:** Gezurra badirudi ere, lasterketetan nagoenean etxera itzuli nahi izaten dut, baina etxean bi egun eman ondoren lasterketetan parte hartzeko irrikan nago herriz. Seme txikia ez

ikusteak izorratzen nau, ordea. Hazten ari da eta, egia esan, gutxitan ikus dezaket.

**G.G.:** Aurtengo denboraldia bukatzeaz dago. Lesioa izan ondoren nolakoa izan da zuretzat urtea?

**M.:** Hilabeteak eta hilabeteak egon nintzen geldirik lesioa zela eta. Niretzat urteko lehen lasterketa apirilean izan zen, Euskal Bizikleta alegia. Helburu bakarra Espainiako Itzulian sasoiaren egotea genuen eta lortu dudala uste dut (egun batzuk beranduago Naranco-ko igoera irabazi zuen Mauleonek).

**G.G.:** Arabak, herrialde txikia izanik, hamar txirrindulari ditu tropel nagusian. Ez da marka txarra...

**M.:** Horixe esaten diet kanpoko lagunei. Mapan ez gara ezer, baina egun 100 txirrindulari inguru gara profesionalak eta hamar arabarrak ditugu. Hori bai, ez daukagu izarrik. "Euskadi" taldearen lana ere aipatzekoa da. Aurten sei arabar ziren talde horretan.

**G.G.:** Euskal Herrian zaletuak asko diren arren, txirrindularitza krisialdian



murgilduta omen dago...


**M.:** Bai, azkenaldian eta bereziki aurten, tropelkideak urduri ikusten ditut. Talde batzuk desagertu egingo omen dira, hamaika txirrindularik ez daukate talderik, soldatak jaitsi nahi dituzte... Giroa ez da ona. Lagunen ahotan esaldi berdinak entzuten dituzu egunero: "Badaukazu zerbait? -Nik ez daukat ezer"; "Zer egin behar duzu datorren urtean? -Ez dakit, bada..." Bizitza dagoen moduan, dugu txirrindularitza. Guk ere badakigu zer diren sei hilabeteko lan kontratuak.

**G.G.:** Esaten duzunez, batzuek milioiak irabazten dituzten bitartean, besteek apurrak baino ez...

**EZ ZARA EGITEN ZURE LENTE PROGRESIBOETARA?**



**MULTIOPTICA**Sen ZURE VARILUXak ZURETARA EGITEN DIRA



- ADITU HOBERENEK PERTSONALIZATU ETA BERMATURIKO EGOKITZAPENA.
- MUGIMENDU ASKATASUNA ETA IKUSMEN EROSOTASUN OSOA.
- SALMENTETAN LEHENA. PREZIOETAN LEHENA.
- ORDAINKETA ATZERATUA ERREKARGURIK GABE
- ADOS EZ BAZAUDE ZURE DIRUA ITZULTZEN DIZUGU



ZERBITZU OPTIKOETAN  
**1a**

**MENDIAOPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
GASTEIZ

**M.:** Babesle askok Indurain baino ez zuten fitxatu nahi. Indurain gabe, ez zegoen talderik. Komunikabideek ere badute zerikusirik horretan. Antza denez, Indurainez gain ez dago ezer. Indurain bezalako txirrindulari handi batek asko lagundu gaitu, baina baita kalteak eragin ere.

**G.G.:** Gaiaz aldatuz, makina bat amets izango dituzu oraindik...

**M.:** Azken urteotan zorigaitza izan dut lagun eta ez dakit zer esan. Ni irabazlea baino gehiago langilea naiz. Taldeko izarrarentzat, Romingerrentzat kasu, egin behar dut lan. Gustora egiten dut, gainera.

**G.G.:** Halere, behin baino gehiagotan lehenengoa izan zara helmugan.

**Espainiako Itzulian onenekin batera ibili zinen...**

**M.:** Bai, ondo ibili naiz, baina ez irabazteko adina. Nik irabazteko, tropeletik ihes egin behar dut, azken metroetan ez bainaiz azkarra. Ez da batere erraza gaur egun irabaztea.

**G.G.:** Noiz arte egongo da Mauleon tropel nagusian?

**M.:** Honetan hasi nintzenean, tropeletik bota egin beharko nindutela esaten nuen. Baina, orain beste era batean ikusten ditut gauzak. Urteak igaro ahala, gero eta gogorragoa da mailari eustea. Dena den, bizpahiru urte gehiago segituko dut, bai.

*Ismael Díaz de Mendibil*

**Arabako izarra**

Arabako txirrindularitzaz ari garela, ezin dugu Izaskun Bengoa ahaztu. Izaskun Amurrión jaio zen orain dela 21 urte eta, gaztea izan arren, dagoeneko Olinpiadetan eta Munduko txapelketan parte hartu du. Berak badaki txirrindularitzaren egoera ekonomikoa kaxkarra dela, eta are gehiago, emakumezkoen kasuan. Hala eta guztiz ere, ez du etsi nahi: "Kirola egitea betidanik gustatu zait. Nirè lagunak tabernaz taberna ibiltzen diren bitartean, ni ohean egoten naiz, igandeetan ere txirringa hartu behar baitut. Txirrindularitzak emakumeoi ez digu sosik ematen, baina gustura egiten dut".



larizale gehiago ikustea gustatuko litzaiguke. Behin baino gehiagotan Frantziako lasterketetan parteide izan naiz eta, han, bideak jendez gainezka daude". Berak ez dioen arren, Frantzian parte hartu ezezik, irabazi ere egin du Izaskunek.

Ametsa zein duen galdetu diogunean, ez du zalantzarik izan: "Sidneyko Olinpiadak ditut helburu. Lau urteren buruan, eta ezustekorik gertatzen ez bada, sasoirik onenean egongo naiz". Dena den, esamol-

96a, ez bairik gabe, urte ona izan da Izaskunentzat. Hamaika lasterketa irabazi ditu, Espainiako eta Euskadiko txapelketak besteak beste. Halere, amurriotarrak, errepide bazterretan zaletu gehiago ez ikustea du pena. "Emakumeoi bide ertzetan txirrindu-

deak dion bezalaxe, gerokoak gero. Orain, neguarekin batera, Izaskunek atseden txiki bat hartuko du "Egia esan, festak eta afariak ere atsegin ditut, beraz, datozen asteotan bizikleta eta biok jai hartuko dugu".

**Hamar Arabar Tropel Nagusian**

**CESAR SOLAUN**  
Laudio 1970-XII-29  
Euskadi

**OSKAR LOPEZ URIARTE**  
Amurrio 1970-II-24  
Banesto / Euskadi

**IGOR GLEZ. DE GALDEANO**  
Gasteiz 1973-XI-1  
Euskadi

**ALVARO GLEZ. DE GALDEANO**  
Gasteiz 1970-I-3  
Artiach / Euskadi

**LUIS MARI DIAZ DE OTAZU**  
Gasteiz 1966-VIII-11  
Seur / Once

**IÑIGO GONZALEZ DE HEREDIA**  
Gasteiz 1971-III-15  
Euskadi

**ALBERTO LOPEZ DE MUNAIN**  
Gasteiz 1972-III-12  
Euskadi

**JON UNZAGA**  
Laudio 1962-VIII-20  
Kas / Seur / Mapei-Clas / Mapei

**FRANCISCO JAVIER MAULEON**  
Gasteiz 1965-IX-16  
Kas / Mapei-Clas / Mapei

**IZASKUN BENGOA**  
Amurrio 1975-III-14  
Fontaneria Perla / Saunier-Duval / Irabia Kirolak / Maderas Telcom



HezoAmerikako  
jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren  
kantoiaeren ertzean Tfnoa: 25 03 52

**TXYSTA**  
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea  
GASTEIZ



Portal  
del  
Rey 9

GASTEIZ

# Tabernetako kultur eskaintza zabala

**C**ontra-Culture izeneko zirkuito alternatiboaren lehendabiziko berriak martxoan izan genituen. Orduetik hona, izen horren babesean, ehun aktuzio pasatxo antolatu dituzte Gasteizko zenbait tabernarik. Era askotako zuzeneko emanaldiak ikus-entzun ditugu hilabete hauetan zehar eta, oportretako atsedendiaren ondoren, hemen ditugu berriz ere, Gasteizko negu hotza berotu asmoz.



**IÑAKI LAZKANO**, El Parraleko tabernariarekin izan gara berbetan. Berak kontatu digu zer den Comtra-Culture, zein asmo dituzten aurrera begira eta nori eta norantza zabaldu nahi duten ideia berri hau.

*Noiz eta nola sortu zen Comtra-Culture?*

Gure kasuan nola izan zen azalduko dizut. Gu tabernariak gara eta traguak zerbitzeaz gain beste zer edo zer egin nahi genuen. Zerbait erakusteko lekurik ez duen Gasteizko jendeari toki berezi bat eskaini nahi genion, hain zuzen ere.

Bestalde, Hangar tabernakoak hilabete batzuk zeramatzen kontzertuak antolatzen. Ideia ona zela iruditu zitzaigun eta animatu egin ginen Comtra-Culture zirkuitu honetan parte hartzen. Aurtengo martxoan izan genuen lehenengo aktuzioa gure lokalean.

*Eta Comtra-Culture zirkuitoan nortzuk hartzen duzue parte?*

Alde zaharrean El Tuerto, Tronereta eta El Parral tabernak gaude (hasieran "El Bode" ere zirkuito honetan sartuta zegoen, baina orain utzi egin du); Cercas Bajas kalean K-2 dago eta Araiako Jose-

txok, Judimendko Ekilorek eta Errotako Hangar-ek ere parte hartzen dute. Denon artean astelehenetik igandera kultur emanaldi ezberdinez beteriko asteak eskaintzen ditugu. Tabernaz gain, soinu ekipoz arduratzen direnak, taldeekin harremanetan aritzen den Diego, eta koordinazioan eta kartelak egiten aritzen den Txitxok osatzen dugu Comtra-Culture.

*Zein da proiektu honetan tabernarien betebeharra?*

Lokala ipini eta taldeei ordaindu, % 20 hain zuzen ere.

*Lan gogorra da hau guztia prestatzea?*



## GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10  
Telefona: 24 59 33

## AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17  
fnoa: 27 40 09  
GASTEIZ



Bai, gainera mobida hau nahiko berde dago oraindik. Baina, tira, batzuetan ondo prestaturiko gauzak ez dira espero bezala ateratzen eta bestetan kontrakoa gertatzen da. Asko pentsatu gabeko zerbait egin eta izugarritzko arrakasta lortzen da.

**Nola osatzen duzue hilabeteroko programazioa?**

Taberna bakoitzak bere egitaraua prestatzen du eta gero elkarrekin koordinatzen dugu. Jendea guregana etortzen da gure tabernan jotzeko aukerarik duen galde-tuz. Hori, nire ustez, oso polita da.

**Musika bakarrik ala zerbait gehiago eskaintzen duzue?**

Egia esan, orain arte gauzatutako emanaldi gehienak musika kontzertuak izan dira. Era guztietako musika izan dugu: klasikoa, rock and rolla, folckea, flamenco, bakarlariren bat, bluesa edota hip-hop-a. Baina musika emanaldez gain bestelako ikuskizunak ere eskaini ditugu: kabareta, transformer party bat, txontxongiloak, antzerkia eta magia besteak beste. Hizkuntzari dagokionez, euskara, erdera, ingelera...

**Talde euskaldun gutxi dago Gasteizen?**

Bai, egia da.

**Eta ikus-entzulegoari buruz, zer eritzi duzu?**

Jendea etortzen da emanaldietara baina, jakina, taldearen ospearen arabera lagun gehiago edo gutxiago biltzen da. Batzuetan lokalak bete egiten dira. Badakizu, tabernako ohiko bezeroei taldearen jarraitzaileak gehitzen zaizkie eta oso giro ederra sortzen da.

**Eta talde berdinak ibiltzen dira zirkuitoan zehar?**

Bai. Gaur hemen eta hurrengo astean han. Halaxe ibiltzen dira. Gasteizen talde gutxi dagoenez aktuzioak errepikatu egin behar dira. Gustora ekarriko genuke kanpoko jendea baina ez dugu behar adina dirurik horretarako. Hala eta guztiz ere, inoiz kanpoko talderen batek ere egin izan digu bisi-

ta-txoren bat.

**Beste inon egiten al da horrelakorik?**

Horrelako "roilo" batean sartuta zaude-nean konturatzen zara beste leku batzuetan ere antzeko gauzak egiten direla. Tabernetan kontzertuak egitea ez da gaur goizeko kotua. Behar bada, koordinaziorena berrikuntza izan daiteke, baina ez dakit.

**Aipatuko al diguzu zuen tabernan ikusi, entzun eta gustoko izan duzun agerraldiren bat.**

Bai, Canariasetako Teatrocaos eta hemengo The Boogaloos taldeen emanaldiak aipatuko nituzke. Horiek dira orain arte gehien gustatu zaizkidanak.

**Canarias irtetakoak?**

Bai, bai. Ez dira asko izan baina kanpotik ekarritako emanaldiak ere izan ditugu. Orain gogora ditzaket lehentxeago aipatutako Teatrocaos eta Madriletik etorritako Breve y Exiguo izeneko antzerki taldeak, besteak beste.

**Eta zuek, zer nolako etekina ateratzen diozue honi?**



Tabernetan giroa sortzea, horixe da gure irabazia. Gasteizen eskaintza kulturala murrizta da. Hiria izan arren, hiriburua gainera, ez dauka kultur bizitza handirik. Guk antolatutako emanaldiek Gasteizko negu hotza berotzeko balio dute. Dirurik? Ezta txakur txiki bat ere!

**Baina jende askoren ustez Gasteizen badago kultur eskaintza nahiko zabala. Hor dituzu, adibidez, jazz eta antzerki jaialdiak.**

Bai, egia, baina gu bultzatzen ari garena dohainik da. Tabernak Euskal Herrian lagunak elkartzeko leku naturalak dira. Orduan guk zera pentsatu genuen: traguaz gain, zergatik ez dugu beste zerbait eskaintzen? Eta hemen gaituzu, bertako taldeei zuzenean aritzeko lokalak eskainiz. Denok dakigu talde xume batek Printzipalean jotzerik ez duela. Horrelako taldeentzat, bada, Comtra-Cultura eta Gaztetxeaz gain ez dago ezer!.

**Zer duzue pentsatuta denboraldi hone-tarako?**

Gabonak arteko egitaraua zehaztuta dugu. Azaroan hauek izango dira gure tabernatik pasatuko diren aktuzioak: Sean Arrate, musika klasikoa egiten dute; 13an Hard Core melodikoa Back Side taldearekin eta 19an Bandar Log taldearen rock and rolla.

Bestalde, denboraldi berri honi begira El Parralekoon asmoetariko bat euskarazko emanaldiak bultzatzea da.

**Nora jo behar du Comtra-Culture zirkuitoan parte hartu nahi duenak?**

Lehenengoz esan behar da edozein adierazpen artistikoarentzat ateak zabalik ditugula: hitzaldiak, erakusketak, musika, antzerkia... Horixe duzu gure asmoa, kulturaren arlo guztietara zabaltzea. Eta informazioa nahi duenak tabernetatik pasa edo telefono hauetara dei egin dezala: 27. 68. 33 (El Parral), 22. 98. 79 (Txixto).

**Txabi Arnal Gil**

**ditare**

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

★  
IZ  
TABERNA  
R  
A  
JATETXEA

BITORIANO  
ZUIA • ARABA  
TEL. 43 00 73



**m**

aitatzea eta maitemintzea

bi gauza desberdin al dira? Askok maiteminduta daudela esaten dute, baina beherala ahaztu egiten dute beren maite kuttuna. Hori gertatzea normala da edo maitasuna betiko dela pentsatzen duzu? Gaur bat duzu gustoko, bihar beste bat eta hurrengoan ez dakit nor. Hori gertatzen al zaizu? Gai honetan gauzak argi ez badituzu test honen bidez laguntza eskaini nahi dizugu. Ea horrela, kupidok gezia noiz botatzen dizun asmatzen duzun!!!

# Ezagut ezazu zeure burua maiteminduta al zaude ?

*Burunburu Komina doktorea*



**1** *Kalean zoaz eta hain gustoko duzun lagun horrekin topo egin duzu. Zer egiten duzu?*

A Zoroarena eginez beste espaloira aldatzen naiz. Ea ikusten ez nauen!.

B Despistatuarena eginez berarengana noa eta lehendik ikusi ez banu bezala agurtzen dut.

C Bitan pentsatu gabe beregana noa ea horrela zita bat lortzen dudan.

**2** *Maitasunak askotan arazoak sortzen ditu. Zuk gustoko duzun laguna Gasteiztik atzerrira alde egitera doala enteratu zara. Zer egiten duzu?*

A Kalimero bezala negar malkotan hasten naiz.

B Lagunaren helbidea lortzen saiatzen naiz  
C Marko (Kortezubiko alkatea ez) banitz Apeninoetatik Andeetara joango nintzateke haren bila.

**3** *Gaur zorteko eguna duzu eta zure laranja erdiarekin egin duzu topo. Baina zertan fijatu zara?*

A Bere hizkera poetiko eta melodikoan  
B Bere gorputz lerdenean  
C Bere diruzorroan

**4** *Dantzaldi batera joan zara eta bihotza apurtzen dizun hori hantxe dago. Zuregana hurbildu zaizu eta dantza bat eskatu dizu. Zer egiten duzu?*

A Oinak minduta ditudala esan eta korrika ihes egiten dut.

B Kontu haundiz heltzen dut gehiegi arrimatu gabe, baina bere oinak behin eta berriz zapaltzen ditut.

C Olivia Newton Jones eta Jhon Travolta "Saturdays nights fever"-en bezala dantzan hasten zarete.

**5** *Gaur zure egunik zoriontsuena da. Azkenean lortu duzu gustoko duzun lagunarekin zita izatea. Baina, zorotzarrez, ez da agertu. Zer egiten duzu?*

A Han gelditzen naiz bera agertu arte. Lau ordu badira, lau ordu.

B Zeozer gertatuko zitzaioala pentsatu dut eta etxera joan naiz. Gero etxetik telefonoz deitu egin diot.

C Madarikazioetan hasten naiz eta etxera noa haserre bizian.

## EMAITZAK:

Zure erantzunetan hiru A edo gehiago badituzu... **SUERTE TXARRA DUZU MOMENTUZ BAINA LASAI, EZ ZARA ALDATUKO!!!**

Hiru B edo gehiago batu badituzu... **SEGI HORRELA, LORTUKO DUZU!!!**

Zenbaketa egin ondoren hiru C edo gehiago badituzu... **LASAITU BEHARREAN ZAUDE!!!**



**HEGOALDE**  
euskaltegia.

Florida kalea 58 behea

tfnoa 28 41 96

01005 GASTEIZ

matrikula  
zaitez!

**Xabier**

**taberna**

musika ona  
eta giro  
ezinhobeak **Kutxileria 23**

## Literatur hitzaldiak

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak antolatutako "Abrite portas klis klas! Haur literaturako topaketak oso harrera ona izan dute. Teresa Castro Kultur-etxeko arduradun nagusiak adierazi duenez, esperientzia positiboa eta oso baliagarria izan da haurrentzat.

Kultur-etxera hurbildu diren 8-12 urte bitarteko neska-mutikoek hainbat liburutako idazle eta ilustratzaileekin aurrez aurre egoteko aukera izan dute. Egileekin egoteaz gain, bestelako lanak ere egin behar izan dituzte haurrek. Horrela, liburuaren amaiera desberdinak asmatu, ilustrazio berriak egin, gutunak idatzi eta abar egin zituzten.

Topaketa hauen helburu nagusia gaztetxoak irakurketara hurbiltzea izan da, liburuetan gordeta dauden altxorak eskura ditzaten. Teresa Castroren ustez, helburu horiek bete egin dira haurrek ilusio eta ikusmin handiarekin hartu dutelako parte topaketa hauetan.

Azaroa eta abenduan, bestalde, lau libururen azalpenak emango dituzte egileek. Hitzaldiak, Kultur etxean arratsaldeko 8etan izango dira eta literatur arlo gehienak ekartzen saiatu dira antolatzaileak. Honako hauek izango dira aurkeztuko diren liburuak:

### Azaroaren 5ean:

Bernardo Atxaga  
"Itzultzaile bat parisen"

### Azaroaren 26an

Imanol Murua eta  
Humberto Unzeta  
"Suetena Belfasten"

### Abenduaren 12an

Joxean Sagastizabal  
"Kutxidazu bidea, Ixabel"

### Abenduaren 19an

Bitoriano Gandiaga  
"Poesi erreztaldia"

# Gogoetak



Iritsi da udazkena. Udara bukaturik, Gasteizko kaleetan gaztainak eta hostoak ageri dira nonahi, dagoeneko. Horixe baita bizilegea: udaran bizi-bizi aritu ondoren, moteldu egiten da natura, neguko loaldirako prestatzen da larrazken oro. Eta horrek eraginda, gu geu ere, gizakiok, udaran gainezka geneukan bizipoza eta alaitasuna galduta, udazkeneko malenkolian murgiltzen gara.

Geure baitara biltzen gara; eta, asko, bakardadeak eta depresioak jotzen gaitu. Nork ez du bizi izan, bada, bakarraldi latzen bat, edo halakoa bizi duen norbait ezagutu? Besteengandik urruti, fidagaitz, eta norberaren frustrazioari gaina hartu ezinik. Besteek emandako maitasunaz jabetzeko ere gai ez dela. Edozein huskeriagatik gordeta zeuzkan jogurretako bat jan diotelako, edo bere liburuetako bat aurkitzen ez duelako Urliarekin eztabaidarik izanez gero, horren gainean gogoetan arituko da luzaroan, Urliak eztabaida ahaztu eta egun batzuk geroago ere. Eguneroko eragozpen txikiak ezin gaintu, eta sufrimenduaren erantzukizuna beti besteena dela pentsatuz.

Hala dabilena, jakituria handiagoa lortu nahian ibili ohi da. Perfekzioa erdietsi nahi izaten du. Ez da, ez, helburu txarra bizitza honetan. Ez du ulertzen, baina, jakituriak sufrimendua eta porrota eskatzen duela noraezean; hutsik egin ez duenak, izan ere, ezin ikasiko du zuzen ezer egiten. Eta bakardadeak jota gaudenean, horrek guztiak geure baitan sortzen duen frustrazioa besteen errua dela uste izaten dugu. Gizakiak besterik ez garela ahaztuta, ateak ixten ditugu; ez dugu uzten besteekin inolako hartuemanik izateko biderik.

Zer egin dezake, ordea, halako egoera latzean bizi denak? Maitatu. Geure bihotza norbaiti ireki: dela Nueva Dentroko kalean lan egiten duen minigonadun pertxenta bati, dela Santa Maria katedraleko sakristauari. Bakardadea sufritzen duenak berak, eta ez beste inork, dauka bere inguruan eraiki duen gaztelutik ateratzeko giltza. Maitatzeko gai baldin bagara, arian-arian, ikusiko diogu irtenbidea geure bizitza bihurtu dugun zulo beltzari.

*Iñaki Gauna*

Tu Invernadero  
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA  
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

**IRVSTA** TABERNA  
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:  
Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19  
Tfnoa: 23 19 33  
GASTEIZ

Kaixo lagun:

**Geu Gasteiz** aldizkaria naiz eta neure buruaz hitzegin nahi dizut ondorengo lerroetan. Laister **laugarren urtea** beteko dut eta otsailean **50. aldiz zure etxean** sartuko naiz. Atrebentzia handia ez bada, artikulua honetan, aurrera begira ditudan asmoei buruz hitzegin nahi nizuke.

Lehen aldiz argia ikusi nuenetik astiro-astiro hazi egin naiz. Zuek gero eta harrera hobea egin didazue eta oso harro nago horretaz. Baina hazi ahala, nire beharrak ere gero eta handiagoak bilakatu dira eta, dagoeneko jaio berria ez banaiz ere, oraindik zuen laguntza beharrezko zait. Laguntza zertarako? Bada, argi eta garbi azaltzen saiatuko naiz:

Lehenik eta behin nire itxuraz zertxobait esan nahi dizut. Koskortu ahala haurzapiak alde batera utzi eta erropa berriak jatzeko ordua iritsi zait. Azal deigarriak, atal eta gai berriak, marrazki eta irudiak eta beste **hainbat berrikuntza prestatzen ari naiz**. Azken batean, nire itxura zaharberrituz, aldizkaria erakargarriago egitea da helburua, zuretzat irakurketa arinago eta errazago gerta dadin. Baina aldaketak ez dira izango itxurari dagozkionak soilik; edukiaren eta mamiaren aldetik ere urteek emandako heldutasuna nabarmendu nahi nuke, Gasteizko gertakari guztiei orri hauetan leku ginez.

Bigarrenik, aldizkaria etxean jaso zain zeudeteno honako hau

esan nahi dizuet. Gasteizko euskaldunon aldizkari naizen honek, Gasteizko euskaldun guztiengana iristea dut helburu. Momentu honetan, hilero ia **6.000 etxetara** sartzen naizen arren, beste asko (600etik gora) zain zaudete aspalditxotik eta, egunero, aldizkaria etxean jaso nahi duzuenon eskari berriak iristen zaizkigu. Tirada handitu bitartean, ordea, ezinezkoa izango zait etxe guzietara heltzea. Eta zergatik ez dugun tirada handitzen? Horretarako nahiko dirurik ez dagoelako.

Azkenik, egora nolakoa den ikusirik zuei laguntza eskatzea erabaki dut. Datorren urteko martxotik aurrera, aldizkari berriarekin batera, aldizkaria etxean jaso nahi duzuenok trukean **1.500 pezeta** ordaintzea eskatuko dizuet. Harpidedun zareten guztiok urtean 1.500 pezetako dirulaguntza emanez gero nire gaurko ametsak bihar errealitate bihur daitezke. Eta nork ukatu diezaioke horrelako laguntza xumea ume koskor maitagarri honi?

Hori dela eta, hilabete honetatik aurrera eta otsaila bitartean, orri honetan bertan **argazkian agertzen diren lau lagun horiek etxez-etxe ibiliko dira** diru-laguntza hori jasotzeko beharrezkoak diren datuak zuei eskatzen. Lagun horiei harrera ona egingo diezuela ziur naiz eta horregatik alde zurretik nire eskerrik beroenak eman nahi dizkizuet. Laister nire berri gehiago izango duzue.

Agur eta ikusi arte.

**Geu Gasteiz**



*Arte*

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak      pintzelak  
oleoak      ikatzkiloak  
akuarela      kaballeteak

500 METRO KARRATU  
PAPERGINTZA, INFORMATIKA  
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

*buruzko Sailik  
zabalena ezazu ezazu*

linteroak  
olioak  
etabar

**%10a**  
gutxiago

**Arriaga**  
euskalgintza, s.l.

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12  
Bildegia: Urtiasolo 2.2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

*nitrales*



**MIKEL  
DELIKA**

**BEIRATE  
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1  
Tfno. 14 64 10  
GASTEIZ



Harpidetza, 12 aldizkari urtean,  
1500 pezeta.



Harpidetza +  
Geu Gasteiz Kamiseta  
2.000 pzta.










Harpidedun guztien artean  
sariak zozketatuko dira.




GEU Elkarteko bazkide izanez  
gero, aldizkaria dohainik

**GEU Elkarteak beste proiektu  
hauek ere bultzatzen ditu:**

-  Mintzalaguna
-  Euskarri Kirol Kluba
-  Irrati euskalduna
-  Umeen elkar trukaketak
-  Abesbatza euskalduna
-  Geurekin mendira taldea
-  Eta abar...

*ji Gainera Gasteizen euskaraz  
egiten diren kultur ekintzen berri  
aldiro etxean postaz izango  
duzueji*

-  Proiektu hauek lagundu nahi  
badituzu GEU-ko bazkide egin  
zaitezke. Kuota 5.000 pzta  
urtean. Telefonoa: 22 21 53.

**HARPIDETZA TXARTELA**

**geugasteiz**  
aldizkaria

**LA RIOJANA**  
jatetxea

*on egin!* EGUNEKO MENUA  
ETA KARTA

Kutxillera, 33 tfoa. 25 02 39



**aterpe**  
GAZTA, PATEA, FONDUES,  
URDAITEGIA, KEZTATUAK  
Florida kalea 4  
14 32 11  
005 GASTEIZ



**XIXILU**

**J  
A  
T  
E  
T  
X  
E  
A**

# Geu gasteiz

# SARI BANAKETA 96

GURE ORRIALDE ETATIK BAZTERTUA IZAN DA,  
 ETA AHOA EZ DU IREKI... BERE HISTORIOAK HILABETEZ ALDATU DUGU,  
 BAINO BERA, LASAI GERATU DE LAKO... SOLDATA IGOERARIK EZ DUE-  
 LAKO... ZENTSURATU DUGU ETA BURU MAKURTU DUE LAKO...  
 BETI BESTE MASAILA JARTZEAGATIK, AURTEN,  
 GURE "BABALORE SARIA" ... TXEROKIRENTZAT!!!!  
 (TXALO BERO BAT)



# ZURE HARATEGIAK

Jose Luis  
**GARMENDIA**  
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13  
☎ 28 79 42  
GASTEIZ



**SANTI**  
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17  
☎ 270790  
GASTEIZ

**XABIER**  
**AIZPEOLEA**  
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48  
2 eta 3  
Abastos Azoka ☎ 26 78 97  
2 eta 3  
GASTEIZ



**JOSEBA**

HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA  
10 ZENBAKIA  
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89  
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi  
samurretan espezialduak**



**kide**




**kide**


**APAINDURA**

Cercas Bajas, 27  
Tfnoa: 14 41 95  
GASTEIZ

Irakasleak ondo baino hobeto ezagutzen bazaitu ...



... Jadanik ez bazarete elkarrekin ongi konpontzen...



... Ikasteko teknika guztiak erabili badituzu ...



... Metodoak huts egiten badizu...



... Atzeko tropela utzi eta aurrera jotzeko prest bazaude ...



... eta batez ere ikasketekin duzun jarrera aldatu nahi baduzu ...



## Klaseak euskaraz

BBB (BUP)

UBI (COU)

OHO (EGB)

LH (FP)

DBH (ESO)



**GEU**

BABESAREKIN

Guatemala, 12 behea  
(Francisco de Vitoria  
Institutuaren atzealdean)

☎ 12 09 50

909 42 88 36